**2004ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

**Saila:** 02 DIPUTATU NAGUSIA

**Programa:** 02 ZERBITZU OROKORRA

**LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2004**

**Departamento:** 02 DIPUTADO GENERAL

**Programa:** 02 SERVICIO GENERAL

## SAILAREN MEMORIA

### I. MEMORIA

Diputatu nagusiaren uztailaren 9ko 127/2003 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiko sailen egitura onartu zen.

Horren ondorioz, Diputatu Nagusiaren Sailak bere baitan ditu erakunde ordezkaritzako arloak, gobernu ekintzako eta sailen koordinazioko zuzendaritza, gizarte harremanak eta erakunde artekoak, gobernuaren bozeramaile lanak egitea eta komunikazioa, legezkotasun publikoaren kontrola, lege aholkularitza eta letratu defentsa, Biltzar Nagusiekiko harremanak, miñoi zerbitzua eta herri babesa, ekonomia eta administrazio erreklamazioak, Erregistro Nagusia, Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialaren administrazioa eta ordenamendu juridikoan adierazitako gainontzekoak.

Sailaren eskumenen artean dira Sailaren beraren, Diputazio Nagusiaren Kabinetearen Zuzendaritzaren eta Idazkaritza Teknikoko Zuzendaritzaren helburu orokorrak lortzea. Zuzendaritza horien programen memorian Sailaren ardurakoak diren funtzioak eta jarduerak zehazten dira.

Hauek bereizten dira, zehazki:

- Arabako Biltzar Nagusietara joatea, osoko bilkuretara zein batzordeetara.
- Arabako Foru Aldundia ordezkatzea, hainbat ekitaldi antolatutan, eta Araba ordezkatzea.
- Erakunde eta agintaritzen aurrean ordezkatzea, bai eta administrazio arteko edo erakunde arteko egitura ezberdinen aurrean ere, hala nola: Gasteizko UNEDen zentro elkartua; Arabako Babes Batzordea; Hirugarren Munduaren garapenean laguntzeko eta elkarlanerako Funtsaren Batzorde Kudeatzailea; Arabako Estatistika Batzordea; Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa; Trebiñoren gaineko erakunde arteko batzorde mistoa; Adingabeen Kontseilua; Herri-Dirubideen Euskal Kontseilua: Vitoria-

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

### I. MEMORIA

Mediante Decreto Foral del Diputado General núm. 127/2003, de 9 de julio, se aprobó la estructura departamental de la Diputación Foral de Álava.

En su virtud el Departamento de Diputado General tiene asignadas las Areas de Representación Institucional, Dirección de la Acción de Gobierno y Coordinación Departamental, Relaciones Sociales e Institucionales, Portavoz del Gobierno y Comunicación, Control de la Legalidad Pública, Asesoría Jurídica y Defensa Letrada, Relaciones con las Juntas Generales, Miñones y Protección Civil, Reclamaciones Económico-Admnistrativas, Registro General y Administración del Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava y las demás que señale el ordenamiento jurídico.

Dentro de sus competencias están la obtención de los objetivos generales del Departamento, así como los de la Dirección del Gabinete del Diputado General y Dirección de la Secretaría Técnica. En la Memoria de los Programas de estas Direcciones se especifican las funciones y acciones que corresponden al Departamento.

Específicamente se distinguen:

- Asistencia a Juntas Generales de Alava tanto en Pleno como en Comisiones.
- Representación de la Diputación Foral de Alava, en diversos actos organizados, y del Territorio Histórico.
- Representación ante Organismos y Autoridades y en distintas estructuras interadministrativas o interorgánicas, tales como: Centro Asociado de la Uned en Vitoria-Gasteiz; Comisión de Protección de Álava; Comisión Gestora del Fondo para la Cooperación y Ayuda al Desarrollo del Tercer Mundo; Comisión Foral de Estadística de Álava; Comisión Mixta del Concierto Económico; Comisión Mixta Interinstitucional sobre el enclave de Treviño; Consejo del Menor; Consejo Vasco de Finanzas;

Gasteizko Arte eta Lanbide Eskola; Arabako Artium Fundazioa; Jesús Obrero Fundazioa; Arabako Probintziako Batzorde Jaraunspen-banatzailea; Euskadiko Herri Babeseko Plana-Labi; Euskal Autonomia Erkidegoko uholdeen arriskuari aurre egiteko larrialdietarako plan berezia; eta Sociedad de Capital Desarrollo de Euskadi, SA (Socade), Euskadiko Unibertsitate Kontseilua eta Espainiako Udal eta Probintzien Federazioa.

- Bisitariei harrera egitea.

### II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN BETETZE MAILA

Diputatu nagusia bederatzi aldiz agertu da Biltzar Nagusien aurrean, hainbat gai direla eta: politika orokorreko eztabaidak, Herri-Dirubideen Euskal Kontseilua, eskumen auziak; baita ere, kontrol plenoetan egindako galdera eta interpelazioei erantzuteko.

Aipatutako erakunde eta organismoek deitutako bileretara joan da.

2004. urtean 81 prentsaurreko egin ditu.

Arabako diputatu nagusia, jasotako gonbidapenei jarraiki, 162 ekitalditara joan da: protokolokozko ekitaldietara, ekitaldi akademikoetara eta kultura eta kirol ekitaldietara.

Era berean, diputatu nagusiarekin entzunaldia eskatuta zuten pertsona askori egin die harrera.



Escuela de Artes y Oficios de Vitoria-Gasteiz; Fundación Artium de Álava; Fundación Jesús Obrero; Junta Provincial Distribuidora de Herencias de Álava; Plan de Protección Civil de Euskadi-Labi; Plan Especial de emergencias ante el riesgo de inundaciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco y Sociedad de Capital Desarrollo de Euskadi, S.A. (Socade), Consejo Vasco de Universidades y Federación Española de Municipios y Provincias (FEMP).

- Audiencias a visitas.

### II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

Por el Diputado General se ha comparecido en nueve ocasiones en Juntas Generales, en relación con diversos temas: debates de política general, Consejo Vasco de Finanzas, conflictos de competencias, y en respuesta a interpelaciones y preguntas formuladas en Plenos de control.

Ha asistido a las reuniones convocadas por las Entidades y Organismos referidos.

Durante el año 2004 ha celebrado 81 ruedas de prensa.

Con motivo de invitaciones cursadas al efecto al Diputado General de Alava, en la representación que ostenta, ha asistido a 162 actos, tanto de carácter protocolario, académico, cultural como deportivo.

Igualmente ha recibido a numerosas personas que tenían solicitada audiencia con el Diputado General.